BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

596

AGINDUA, 2011ko abenduaren 15ekoa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuarena, Portugaleteko (Bizkaia) Bigarren Hezkuntzako ikastetxe pribatu bat irekitzeko eta jardunean jartzeko baimena emateko dena.

Aztertu da Jose Antonio Seoane Varela jaunak abiarazi duen espedientea, non baimena eskatzen baita Portugaleteko udalerrian (Bizkaia) Bigarren Hezkuntzako ikastetxe bat irekitzeko eta jardunean jartzeko.

Espediente hori Bizkaiko Hezkuntza Ordezkaritzak izapidetu du, indarreko arauek eskatzen dituzten agiriak erantsi zaizkio, eta arlo horretan eskumena duten erakundeek horri buruzko txostena eman dute.

Arau hauek izan dira kontuan: unibertsitateaz kanpoko araubide orokorreko irakaskuntzak eskaintzeko baimena ikastetxe pribatuei emateari buruzko apirilaren 3ko 332/1992 Errege Dekretua (9ko BOE), Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako irakaskuntzak ematen dituzten ikastetxeentzako gutxieneko baldintzak ezartzen dituen otsailaren 12ko 132/2010 Errege Dekretua (martxoaren 12ko BOE), hezkuntza sistemako Lanbide Heziketaren ordenazio orokorra ezartzen duen abenduaren 15eko 1538/2006 Errege Dekretua (2007ko urtarrilaren 3ko BOE), hezkuntza-sistemaren barruan lanbide heziketaren antolaketako alderdi jakin batzuk garatzen dituen apirilaren 30eko 777/1998 Errege Dekretua (maiatzaren 8ko BOE), eta gai horretan aplikatzekoak diren indarreko xedapenak. Horiek horrela, hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Baimena ematea 2012-2013 ikasturtetik aurrera honako ikastetxe pribatu hau irekitzeko eta jardunean jartzeko:

Kode-zenbakia: 48017812.

Izen generikoa: Bigarren Hezkuntzako ikastetxe pribatua.

Izen espezifikoa: «Excavas».

Titularra: Gestión 10 Gestión & Formación SLU.

Helbidea: Antonio Gurrutxaga 9, behea.

Udalerria: Portugalete.

Lurralde historikoa: Bizkaia.

Baimentzen diren irakaskuntzak:

Lanbide Heziketa:

Familia: Eraikuntza eta Obra Zibila.

Eraikuntza-makineria erabiltzeko eta mantentzeko erdi mailako prestakuntza-zikloa. Edukiera: Ziklo 1, 20 ikaspostu, goizeko eta arratsaldeko txandetan.

2. artikulua.– Ikastetxeak indarrean dauden legeak bete beharko ditu, ikaspostuen kopuruari, eskola-unitate bakoitzeko gehieneko irakasle/ikasle erlazioari eta agindu honen bidez baimendutako unitateetako irakasleen titulazio akademikoari eta hizkuntza-eskakizunari dagokienez. Bestela, emandako baimena baliogabetuta geratuko da.

3. artikulua.– Ikastetxeak martxoaren 17ko 314/2006 Errege Dekretuak onartutako Eraikuntzako Kode Teknikoa bete beharko du, bai eta indarreko legeriak ezartzen dituen higiene-, akustika-, bizigarritasun-, segurtasun- eta irisgarritasun-baldintzak ere. Ikastetxeko titularrarena izango da baldintza horiek ez betetzearen erantzukizuna.

4. artikulua.– Indarrean dauden legeak betetzera beharturik gelditzen da ikastetxea, eta agindu honetan adierazitako daturen bat aldatu behar bada, dagokion berrikusketa eskatzera.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Agindu honetan dagoen baimen-emate honek ez du esan nahi hezkuntza-itunen araubidearen bitartez laguntzarik lortuko denik.

Bigarrena.– Agindu honen aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko abenduaren 15a.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburua,
MARÍA ISABEL CELAÁ DIÉGUEZ.